



 **GARAPEN**
JASANGARRIRAKO
HELBURUAK




Ikas-egoerak

Bihurtu dezagun biral bakea

DBHko 3. eta 4. mailak





Bihurtu dezagun biral bakea © SED GGKE 2026k garatutako hezkuntza-proposamena da. Material honek baimen hau du: Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0

Egileak: Ana Martín Bautista, Cristian Gómez Martín, Florencia Agustina Bulacio Vaira, Izaskun Adot Larumbe eta Tania Días Basurdo, SED GGKEko HGHE batzordeko kideak, Ana Fernández Moya proiektuen koordinatzailearen eta Beatriz de la Banda Velázquez batzorde iraunkorreko kidearen laguntzarekin.

Berrikuspen teknikoa: Nuria Salvatierra Villada, Jesús Rojas Aguilar, Rocío Rodríguez Rueda, Esther Lechado Hurtado, Coral de la Camara García, Teresa Rodríguez Pérez de Ayala, Isabel de la Cruz Sierra, Agnola Soler Ortiz, Inmaculada LLacer Moreno Auriolés, M^a del Carmen Millán Herrera, Sevillako Maristen ikastetxeko irakasle taldeko kideak.

Diseinuak: Zootropo Studio.

Maketazioa: Victoria Daima, SED GGKEko komunikazio-arduraduna.

1. IE: “Munduko gatazkak: indarkeriatik bakearen eraikuntzara”

Testuingurua

16. GJHak (16. GJH: Bakea, justizia eta instituzio sendoak) giza eskubideen errespetuan oinarritutako gizarte baketsu eta inklusiboen eraikuntza sustatzen du. Ikuspegi horretatik, bakea ez da gerrarik ez izate hutsa; aitzitik, bidezko harremanak, erakunde sendoak eta gatazkei indarkeriara jo beharrik gabe aurre egiteko gai diren herritarrak izatea da.

Kanpaina honetako oinarrizko dokumentuan jasotzen denaren ildotik, gaur egungo indarkeriazko egoerak eta gatazka armatuak ez dira kasu bakanak. Horien atzean, gauza asko daude: desorekak, eskubideen urraketa, bazterketa-prozesuak, gorroto-diskurtsoak, polarizazioa, herritar talde jakin batzuk deshumanizatzen dituzte kontakizunak. Dinamika horiek ulertzea oinarri-oinarrizkoa da bakearen kultura bat eta justiziarekin eta bizikidetzarekin konpromisoa hartuta diharduten herritarrak trebatzeko.

Munduan gertatzen diren gatazkek ondorio suntsitzaileak dituzte milioika pertsonarengan, haur eta gazteengan bereziki: lekualdatzera behartzen dituzte pertsona asko, krisi humanitarioak eragiten dituzte, eta larriki urratzen dira eskubideak. Baina, aldi berean, aukera bat ere badira, hezkuntzaren ikuspegitik, indarkeria zer arrazoik elikatzen duten gogoetatzeko, edota informazioak, diskurtso publikoek eta sare sozialek taldeko pertzepzioen eraikuntzan zer funtzio betetzen duten pentsatzeko.

Ez dira urruneko errealitateak DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleentzat. Internet eta sare sozialen bidez, etengabe jasotzen dituzte gerrei, migrazioei edo nazioarteko tirabirei buruzko irudi, mezu eta berriak. Hala ere, informazio hori zatikatuta eta sinplifikatuta iristen zaie, edota desinformazioarekin, estereotipoekin edo mezu polarizatzaileekin nahastuta, eta zaildu egiten du horrek gatazken konplexutasunaz jabetzea, gorroto-diskurtsoen hedapena bultzatzeaz gain.





Horregatik, «Bihurtu dezagun biral bakea» kanpainaren barnean, proposamen didaktiko hauek begirada kritiko bat gararazi nahi dute ingurune digitaletan dabilen informazioaren aurrean, eta bizikidetzaren, enpatia eta giza eskubideen defentsa sustatzen dituzten komunikazio moduak indartu nahi dituzte. Indarkeria bultzatzen duten diskurtsoak nola eraikitzen diren ulertzeak aukera ematen digu zaintzan, inklusioan eta bakean oinarritutako mezu alternatiboak identifikatu eta zabaltzeko ere, eta, hala, 16. GJHarekin konprometitutako herritarrak indartuko dituzten eragile aktibo bihurtu daitezke ikasleak.

Ikuspegi horretatik, gatazka ez da berez ezer negatiboa: giza harremanen eta gizarte-bizitzaren parte da. Horiei aurre nola egiten zaien da kontua. Gatazkei indarkeriaren, bazterketaren edo desinformazioaren bidez erantzuten zaienean, areagotu egiten dira hausturak; elkarrizketaren eta lankidetzaren bidez eta pertsona guztien duintasuna aitortuz erantzuten zaienean, ordea, gizarte justu eta bakezaleagoak eraikitzeko aukera bat dakarte.

Ikasegoera honen bidez, ikasleek honako hauek lortzea nahi genuke:

- Desinformazioaren eta gorroto-diskurtsoen ondorioak ulertzea, bereziki gaur egungo gatazkei erreparatuz.
- Sare sozialetan eragile aktibo gisa betetzen duten zeregina indartzea, berri faltsuak eta indarkeriazko edukiak hautemateko: informazioa kritikoki aztertuz, iturriak egiaztatuz, etab.
- Gogoeta egitea biralizazioaz eta esparru digital eta erreal seguru eta inklusiboan eraikuntzan duten parte-hartzeaz.
- Bakeren inguruan beren kontakizunak sortzea eta biral egitea, desinformatu eta deshumanizatu baino egiten ez duten mezuei aurre egin ahal izateko.

Hala, konpromiso sendoko herritartasun kritiko bat bultzatzen da, gai dena maila globalean nahiz ingurunean bakearen kultura bat eraikitzeko.

Esparru teorikoa



Oinarrizko kontzeptu batzuk

- Gorroto-diskurtsoa
- Desinformazioa
- Indarkeria
- Algoritmoak
- Biralizazioa
- Gatazkak
- Bakearen kultura
- Giza eskubideak
- Gatazkak bakez ebaztea
- Justizia soziala

Saioa gidatzeko galderak

Zer dakigu munduan diren gatazkei buruz?


Zer bidetatik jasotzen dugu gertatzen ari denari buruzko informazioa?

Nola landu da gaia sare sozialetan (Instagram, Tik Tok, X, WhatsApp eta antzekotan)?


Zer eduki mota iristen zaizkigu? Zer gai edo informazio ez dira agertzen? Zergatik gertatzen da hori?

Nola hartzen dugu parte guk esparru digitalean?

Sare sozialetako eragile aktibo garen aldetik, zer jardunbide sustatu behar ditugu?



Helburuak



Ikasegoera honen bidez, ikasleak problema identifikatzea lortu nahi da, eta, horrez gain, zerbait egiteko tresnak garatzea. Ikasleak gai izango dira horrela:

- Beren jardunean inguruan duten edukia kritikoki aztertzeke.
- Ingurune digitalak gorroto-diskurtsoak hedatzea errazten duela ulertzeke (biralizazioa, anonimotasuna, algoritmoak).
- Fenomeno honek gizakiengan eta batez ere biztanle zibilengan zer ondorio dituen ulertzeke.
- Indarkeriarik gabeko komunikazio-estrategiak aplikatzeko.
- Rol aktibo bat hartzeko, bakearen kulturarako eragile gisa.

Curriculumeko elementuak

Oinarrizko konpetentziak:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Bakerako komunikaziorako konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- Gaitasun digitaletarako konpetentzia



Oinarrizko jakintzak:

- Gatazka garaikideak
- Giza eskubideak
- Bakearen kultura
- Parte-hartze demokratikoa
- Informazioaren azterketa kritikoa

1. dinamika: “Gatazka ulertzea: zer ari da gertatzen munduan?”

Deskribapen narratiboa

Jarduera honetan, gaur egungo zenbait gatazkatara hurbilduko dira ikasleak, ikuspegi analitiko eta kritiko batetik. Talde-lanaren bidez, gertatzen ari denari buruzko eduki biralak zer ideiak sorrarazten edo hauspotzen dituzten ikertzen eta ulertzen dute, bai eta zer pertsona talde edo sektore jartzen dituzten jopuntuan eta zer ondorio dituzten ere.

Helburua ez da gatazkei buruzko berri faltsuak edo gorroto-diskurtsoak hautematea soilik; horrez gain, horrelako egoeren konplexutasuna ulertzeko informazioa nola lortu dezakegun jakin nahi dugu, ikuspegi sinplistik edo polarizatuak saihestuz, betiere. Ikasleek oinarri sendoko begirada global eta enpatiko bat hartu dezaten lortu nahi da, batez ere gatazka horiek gizarte zibilean duten eraginaz jabetuz, eta haien ekiteko gaitasuna indartu nahi da, sare sozialen kontsumitzaile eta ekoizle diren aldetik.

Beharrezkoak diren baliabideak

- Itxuraz sare sozialetakoak diren pantaila-irudiak (iruzkinak, memeak, egokitutako argitalpenak).
- Azterketarako txantiloia.

Azalpena fasez fase

Hasiera

Gorrotoa edo bereizketa adierazten duten zenbait mezu erakutsiko ditu irakasleak (ikasleen adinera egokituta). Galdera bat botako zaie, abiapuntu gisa: “Iritzi hutsa da, edo min egin diezaioke norbaiti?”. Ideia-jasa bat egingo da tartetxo batez, hasieran zer ikuspegi duten jabetzeko, baina ez da epairik emango eta ez da zuzenketarik egingo une horretan.

Garapena

Talde txikiak osatuko dira ikasleen artean, eta mezu bat edo pare bat aztertuko dituzte, gogoetan lagunduko dieten fitxa egituratu bat erabiliz.

Gero, mezuan dauden estereotipoak edo aurreiritziak identifikatuko ditu talde bakoitzak, eta gogoeta egingo dute eskola- edo gizarte-inguruneko egoera errealekin duten zerikusiaz.

Egungo gatazkei buruzko eduki faltsuak eta gorroto-diskurtsoak

SHARE

1. kasua

Gerraren alderdi bat baino ez dute erakusten komunikabideek, manipulatu nahi gaituztelako.



2. kasua

Bideo horrek argi eta garbi erakusten du zer gertatu zen benetan.



3. kasua

Hemen beren herrialdean baino hobeto bizi direlako etortzen dira errefuxiatuak.



4. kasua

Gero eta errefuxiatu gehiago datozenez, ez dago hemengoentzako laguntza nahikorik.



5. kasua

Jada ez du inork ezer esaten gertatuaz, konponduko zen egoera.



6. kasua

Zauritutako zibilen irudiak adimen artifizialarekin eginda daude.



7. kasua

Ez dute gerra batetik ihesi datozen pertsonen itxurarik.



8. kasua

Errefuxiatuek arriskuan jartzen dute gure segurtasuna.



9. kasua

Itsasontzi baten irudia, honako testuarekin: "Komunikabideek migrazio esaten dioten inbasioa".



Jarduera honetan ageri diren mezuak fikziozkoak dira, eta hezteko xedez landu dira.

Irakaslearentzako fitxa

SHARE

1. kasuaren analisia:

Prentsa osoarekiko konfiantza falta erabatekoa erakusten du.

2. kasuaren analisia:

Bideo bakar bat ez da inoiz aski.
Testuingurutik ateratako zerbait izan daiteke.
Galdetu: nork argitaratu du?, noiz?, non?

3. kasuaren analisia:

Lekualdatzeko arrazoiak sinplifikatzea da.
Gerrak, jazarpenak, giza eskubideen urraketak
ez ikustea edo ezkutatzea esan nahi du.

4. kasuaren analisia:

Orokortzea, edo kausa-efektu erlazio faltsua,
frogarik gabe jardutea. Biktimak mehatxu
ekonomiko bihurtzen ditu.

5. kasuaren analisia:

Komunikabideek zerbaitetan arretarik
gehiago ez jartzeak ez du esan nahi krisia
amaitu denik.

6. kasuaren analisia:

Negazionismoa, inolako ebidentziarik
gabe. Egiaztatu egin behar da.

7. kasuaren analisia:

Errefuxiatuak itxura jakin batekin lotzen
ditu. Estigmatizazioa, eta gatazkaren
larritasuna nahiz herritarrei
jasanarazitako ondorioak ez ikustea.


8. kasuaren analisia:

Kolektibo bat oso-osorik estigmatizatzea.

9. kasuaren analisia:

Hizkera militarra aplikatzea zibilei;
deshumanizatzea, eta beldurra sortzea.

Azterketarako fitxa



Zer emozio piztu nahi da mezu honen bidez?

Zer talde ageri da seinalatuta edo errudun bihurtuta?

Zer froga ematen ditu?

Zer informazio falta da?

Nola jakin dezakegu egia den?

Zer ondorio izan ditzake partekatzeak?

Itxiera

Bateratze-lana egingo du talde bakoitzak, eta gogoeta egingo dute elkarrekin. Azken zatirako gomendioak.

Egiaztatu iturriak

- Aztertu noiz argitaratua den.
- Ikusi bakarkako datu bat den, edo testuinguru batean kokatu beharreko informazioa den.
- Aztertu ea kontua egiaztatuta dagoen edo erakunde bati dagokion, haren webgune ofizialera joz.
- Ziurtatu kontu horren edukiak informazioa ematea duela xede, eta ez sentsazionalismoa.

Kontsultatu beste iturri batzuk



Bilatu informazioa komunikabide edo kanal batzuetan: gatazka bati buruz ari garenean, garrantzitsua da estatuaren, erakundeen eta komunikabide ofizialen nahiz lurralde horretan lanean ari diren GKEen informazio publikoa eskuratzea.

Aztertu informazioa



Gai honi buruzko zer informazio dugu? Zer ari da gertatzen, eta non, zehazki? Nori eragiten die? Noiz gertatu zen? Zer arrazoi eta ondorio ditu? Zer aukera daude gai horrekin lotuta?

Izan bakearen ahots



- Ez jardun interakzioan eduki faltsuekin edo indarkeriazkoekin. Ez hartu parte gorrotoa biral bihurtzeko duen katean.
- Egiaztatuta dauden eta eskubideetan eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako ikuspegitik lantzen diren edukiak partekatu.

2. dinamika: “Bakea eraikitzea: indarkeriari gabeko irtenbideak bilatzea”



Bigarren jarduera honetan, ikasleek analisitik ekintzara egingo dute jauzi, eta, horretarako, kontakizun alternatibo bat edo kontranarratiba bat sortzen lan egingo dute, bakearen eta aniztasunaren errespetuaren ikuspegitik. Bi aukera proposatzen dira lanerako: a) ondoren proposatzen diren kasuetako bat aukeratuko du talde bakoitzak, eta edukia sortuko du, bakean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako begirada batetik; b) talde-lana, gazteen kezka-iturri izan daitezkeen gaiak hautemateko eta, ondoren, aukeratutako gaiari buruzko kontakizun alternatiboak edo bakezko mezuak eraikitzeko.

Jarduera honek bakea ez dela zerbait pasiboa ulertzen laguntzen du, parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen dituen prozesu aktibo bat dela jabetzen. Hainbat gaitasun lantzen dira, hala nola argudiaketa, enpatia eta taldean erabakiak hartzea.

Beharrezkoak diren baliabideak

A aukera

- Irakaslearentzako fitxa, kasuak esleitzeko.
- Herrialdeen txantiloia ikasleen talde bakoitzarentzat: gomendatutako berriak erabil daitezke, edota iradokitako zerrenda tokiko komunikabideek landutako edukiekin osatu daiteke.
- Bake-mezuak sortzeko kartoi meheak edo tresna digitalak.
- Aukeran: itxiera gisa, bateratze-lanaz gain, taldearen argazki bat egitea proposatzen da, ikasleek sortutako kartelak edota materialak ere erabilia, edo bideo bat egitea, non talde bakoitzak bere bake-mezuak azalduko dituen. #Bihurtudezagunbiralbakea traola erabiltzea gomendatzen da, edota kanpainaren kartela erabiltzea.

B aukera

- Taldekako lanerako txantiloia.
- Bake-mezuak sortzeko kartoi meheak edo tresna digitalak.
- Aukeran: itxiera gisa, bateratze-lanaz gain, taldearen argazki bat egitea proposatzen da, ikasleek sortutako kartelak edota materialak ere erabilia, edo bideo bat egitea, non talde bakoitzak bere bake-mezuak azalduko dituen. #Bihurtudezagunbiralbakea traola erabiltzea gomendatzen da, edota kanpainaren kartela erabiltzea.

Azalpena fasez fase

A aukera

Hasiera

Lau taldetan banatuko du ikastaldea irakasleak, eta kasu bat esleituko dio bakoitzari.

Garapena

Mezu honen azterketatik abiatuko da ikastaldea, 1. dinamikan ikasitakoaren arabera (2. dinamika baino ez egitea erabaki bada, 1. dinamikako lanerako fitxa erabil daiteke oinarri gisa, bateratze-laneko zati honetarako), eta lanari helduko diote: bakezko mezu bat eraikitzea. Edukia landu aurretik, fitxa banatuko da, herrialdearen arabera, gomendatutako iturriekin; hala, hainbat ikuspegi jaso ahal izango dituzte ikasleek gertatzen denaz. Azkenik, edukia sortzeko fitxari helduko diote, eta talde bakoitzak bere esku-hartzea diseinatuko du, bakezko begirada batekin.

B aukera

Hasiera

Taldeak osatuko ditu irakasleak, taldeko fitxa egin dezaten.

Garapena

Sare sozialetan iradokitako edukiak erregistratuko ditu talde bakoitzak; eduki horiek nola lantzen diren aztertuko du (indarkeriaz edo bakezko begirada batetik), eta zer gaik kezkatzen dituzten adieraziko dute, narratiba bat eraikitzeko, eskubideetan eta pertsona guztien duintasunean oinarritutako ikuspegi batetik.

Itxiera, bi aukeratarako

Bateratze-lana, ikasleekin batera. Pertsona guztientzat segurua izango den ingurune digital eta erreal bat eraikitzeko gazteek parte hartzeak duen garrantzia azpimarratuko da. Jarduera argazki edo bideo baten bidez ere erregistratuta utz daiteke, talde bakoitzak bere bake-mezua adierazi eta biral egin dezan.

A aukera. Irakaslearentzako fitxa, kasuak esleitzeko

SHARE

1. kasuaren analisia: Sudan

X motako sare bateko argitalpena:

Berrietan ia agertu ere egiten ez bada, esan nahi du gatazka ez dela horren larria.

Arazoa: komunikabideetan agertzea gatazkaren larritasunarekin lotzea.

3. kasuaren analisia: Ukraina

TikToken argitaratutako bideoa. Plaza batean dantzan ikusten dira zenbat pertsona irudietan. Testu honekin: "Gerra-eremua omen da".

Arazoak: testuingurutik aterata emandako informazioa; gerra jasaten ari diren pertsonen eta gerraren larritasunaren ikuspegiari eragiten dio batez ere.

2. kasuaren analisia: Palestina

X motako sare bateko argitalpena:

Gazako biztanle guztiak dira talde armatuek egiten dutenaren arduradun.

Arazoak: orokortzea, eta ez egitea bereizketarik zibilen eta borrokalarien artean.

4. kasuaren analisia: Siria

X motako sare bateko argitalpena:

Horrenbeste urteren ondoren, ezin dugu pertsona horiei errefuxiatu esaten jarraitu.

Arazoak: lekuz aldatuta horrenbeste denbora pasatu izanak ez ditu automatikoki ezabatzen beren lurraldera segurtasunez itzultzea eragozten dieten kausak.

Jarduera honetan ageri diren mezuak fikziozkoak dira, eta hezteko xedez landu dira.

A aukera – Ikasleen talde bakoitzerako txantiloia herrialdearen arabera

Komunikabideetako ebakinak – Sudan

Izenburua	Data	Formatu mota	Komunikabide / Erakundea	Ekarpena, gatazka hobeto ulertzeko	Izenburua
Reem da nire izena	13/11/2025	Instagrametik o karrusela	SED eta FMSI GGKEak	Haurren eskubideen urraketan oinarritutako ikuspegia (hezkuntza-eskubidea bereziki)	Reem da nire izena
Ezin dugu ahaztu Sudan	4/11/2025	Instagrametik o reela	ACNUR - UNHCR (Espainia)	Behartutako lekualdaketei buruzko ikuspegia	Ezin dugu ahaztu Sudan
Sudan: diru-sarrera handiekiko herrialdeek Berlingo bilera baliatu behar dute bizitzak salbatzeko, gatazka hasi eta	10/4/2026	Berria	Amnesty International	Emakumei buruzko ikuspegia	Sudan: diru-sarrera handiekiko herrialdeek Berlingo bilera baliatu behar dute bizitzak salbatzeko, gatazka hasi eta hiru urtera
Sudan, azken 50 urteotako giza hondamendi handiena	17/4/2026	Analisi-podcasts / elkarrizketak	RTVE Audio – Tablero Global	Testuinguruan kokatzea, komunikabideetan betetzen duen tokiaren ikuspegitik	Sudan, azken 50 urteotako giza hondamendi handiena
Museoa, gerra-kuartel: Sudango hainbat mendetako historia suntsitu duen harrapaketa	20/7/2026	Erreportajea	El País Planeta Futuro	Kultura ondarean oinarritutako ikuspegia	Museoa, gerra-kuartel: Sudango hainbat mendetako historia suntsitu duen harrapaketa

A aukera – Ikasleen talde bakoitzerako txantiloia herrialdearen arabera

Komunikabideetako ebakinak – Palestina

Izenburua	Data	Formatu mota	Komunika bidea / Erakundea	Ekarpena, gatazka hobeto ulertzeko	Izenburua
Hind da nire izena	25/11/2025	Instagrametik o karrusela	SED eta FMSI GGKEak	Haurren eskubideen urraketari buruzko ikuspegia	Hind da nire izena
Krisi ikusezina: nola eragiten dio gerrak emakumeen buru-osasunari? NBE Emakumeak	7/4/2025	Azalpen-artikulua	NBE Emakumeak	Emakumeen buru-osasunari buruzko ikuspegia	Krisi ikusezina: nola eragiten dio gerrak emakumeen buru-osasunari? NBE Emakumeak
Larrialdia Gazako zerrendan		Adierazpena – lekukotasunak	Unicef	Testuinguruan kokatzea, fokua haurrengan jarrita	Larrialdia Gazako zerrendan
Palestinako lurralde okupatuko bizimoduaz jakin beharreko bost gauza	5/6/2026	Berria	Mugarik Gabeko Medikuak	Testuinguruan kokatzea, fokua osasun-laguntzan jarrita	Palestinako lurralde okupatuko bizimoduaz jakin beharreko bost gauza

A aukera – Ikasleen talde bakoitzerako txantiloia herrialdearen arabera

Komunikabideetako ebakinak – Ukraina

Izenburua	Data	Formatu mota	Komunikabi dea / Erakundea	Ekarpena, gatazka hobeto ulertzeko	Izenburua
Krisi ikusezina: nola eragiten dio gerrak emakumeen buru- osasunari?	7/4/2025	Azalpen- artikulua	NBE Emakumeak	Emakumeei eta emakumeen buru-osasunari buruzko ikuspegia	Krisi ikusezina: nola eragiten dio gerrak emakumeen buru- osasunari?
Haurren eskubideak Ukrainan: egungo egoera / Gure izena Iryna da: bizi-historiak	13/11/2025	Elkarrizketa k / Lekukotasu nak	SED eta FMSI GGKEak	Haurrei buruzko ikuspegia. Bizi- historiak	Haurren eskubideak Ukrainan: egungo egoera / Gure izena Iryna da: bizi- historiak
Ez ahaztu Ukraina: Errusiaren inbasioak sufrimendu handia eragiten jarraitzen du oraindik, lau urtera	24/2/2026	Berria	CEAR – Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordea	Testuinguruan kokatzea, fokua behartutako lekualdaketetan jarrita	Ez ahaztu Ukraina: Errusiaren inbasioak sufrimendu handia eragiten jarraitzen du oraindik, lau urtera
“Ukrainan osasun- laguntza suntsitzea: biztanleak zigortzeko propio eta zehatz kalkulatuta landu den estrategia”	13/7/2026	Txostena	Mugarik Gabeko Medikuak	Osasun-krisiari buruzko ikuspegia	“Ukrainan osasun- laguntza suntsitzea: biztanleak zigortzeko propio eta zehatz kalkulatuta landu den estrategia”

A aukera – Ikasleen talde bakoitzerako txantiloia herrialdearen arabera

Komunikabideetako ebakinak – Siria

Izenburua	Data	Formatu mota	Komunikabi- dea / Erakundea	Ekarpena, gatazka hobeto ulertzeko	Izenburua
“Egunero ezusteko desberdin batekin esnatzen gara”; Siriako egoera, eta nola jartzen den arriskuan marista urdinen lana Alepon	7/4/2025	Berria	SED GGKEa	Testuinguruan kokatzea, fokua giza laguntzari jartzen zaizkion trabetan jarrita	“Egunero ezusteko desberdin batekin esnatzen gara”; Siriako egoera, eta nola jartzen den arriskuan marista urdinen lana Alepon
Siriako krisia: zer ari da gertatzen?	21/1/2026	Berria	ACNUR - UNHCR (Espainia)	Testuinguruan kokatzea, fokua behartutako lekualdaketetan jarrita	Siriako krisia: zer ari da gertatzen?
Ahaztutako gatazkak: Siria, suntsitutako estatu baten hauskortasuna	15/3/2026	Bideo informatiboa	Manos Unidas	Testuinguruan kokatzea, fokua gatazka bistaratzean jarrita	Ahaztutako gatazkak: Siria, suntsitutako estatu baten hauskortasuna

B aukera – Talde-lanerako txantiloia



Sare sozialetan gabiltzanean, zer gai mota iristen zaizkigu behin eta berriro?	
Zer ikuspegitatik heltzen diete errepikatzen diren gai horiei plataformetan?	
Zer eduki motak kezkatzen edo larritzen gaituzte?	
Zer jokabide hautematen ditugu erabiltzaileen edo komunitateen artean gai horien inguruan?	
Zer falta da mezu horietan?	
Nola hartzen dugu parte horien aurrean?	

A eta B aukerak – Edukiak sortzeko txantiloia

Sortu narratiba alternatibo bat esleitutako kasuaren (A aukera) edo aukeratutako gaiaren (B aukera) aurrean.

Izena:

Eskola:

Maila:



Hauxe da gure bake-mezua _____

#bihurtudezagunbiralbakea

Sortu zure traola: #_____

Itxiera: sintesi didaktikoa

Ikasleek kritikoki azter dezakete kontsumitzen duten informazioa, eta modu aktiboan parte hartu dezakete guzientzat segurua den ingurune digital baten alde. Mezuak aztertu eta eraldatu ondoren, ikasleek ikusten dute bake-kultura ez dela kontzeptu abstraktu bat, errespetuan, empatian eta erantzukizunean oinarrituta jarduteko modu bat baizik.

Ebaluazioa

Ebaluazioan, ezaguerak barneratu diren balioesteaz gain, gizarte-gaitasunen eta jarreraren garapena ere ebaluatuko da. Benetako egoerak aztertzeko ikasleek duten gaitasunari erreparatuko zaio bereziki, kritikoki posizio jakin bat hartzeko, eta bake-kulturan oinarritutako aukerak proposatzeko.

Tresnak

- Talde-lanaren behaketa
- Ikasleek ekoizpenak
- Parte-hartzea
- Autoebaluazioa

Ebaluazio-irizpideak

Ikasleek:

- Diskurtso faltsuak eta gorrotozkoak identifikatzen dituzte, eta batzuk eta besteak bereizten dituzte.
- Mezuak kritikoki aztertzen dituzte.
- Mezuak biral bihurtzeak zer eragin duen ulertzen dute.
- Bake-narratibak proposatzen dituzte.
- Aktiboki parte hartzen dute.
- Aniztasuna errespetatzen dute.

Gelako emaitzak partekatu nahi dituzu?

Bidaliezaguzu materiala (argazkia, bideoak, jardueraren laburpena) helbide honetara: comunicacion@sedongd.org.

*SED GGKEtik, gure kanaletan argitaratuko ditugu zuek bidalitako lanak, **bakea biral egiteko eta kanpainaren eragina ikusarazteko.***

Ebaluatu materiala!

Bidaliezaguzu zure iruzkina **inprimaki** honen bidez.

Kanpainaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzetarako hobetzeko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko soilik tratatuko ditu datuak SED GGKEak.

